



HERRIZAINGO SAILA

*Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko  
Zuzendaritza*

DEPARTAMENTO DE INTERIOR

*Dirección de Atención a las Víctimas de  
la Violencia de Género*

# EAE-N GENERO- INDARKERIAREN BIKTIMA DIREN EMAKUMEAK

## 2010eko BALANTZEA



Genero-indarkeriaren Biktimei  
Laguntzeko Zuzendaritza

## GENERO INDARKERIAK EAE-N ERAGINDAKO HILDAKOAK (2010)

➤ 2010ean, 5 emakume erail ditu genero-indarkeriak: horietako bi beraien bikoteak edo bikote ohiak hil ditu eta beste hiruak familia barruko indarkeriak.

➤ Urtean zehar hildako bost andreak Espainiakoak dira eta batz bestek 44 urte zituzten.

➤ Urtarrilaren 17an, Elena Cal andreari heriotza eman zioten Tolosan; otsailaren 8an Amelia Sánchez erail zuten Barakaldon; otsailaren 19an Isabel Vélez Lasarten erail zuten; aurreko uztailaren 25ean Amelia Amaya andreari bere bikoteak heriotza eman zion Bilbaon; eta abenduaren 6an, Barakaldon Cristina Estébanez erail zuen bere bikote ohiak.

## GENERO INDARKERIAK EAE-N ERAGINDAKO HILDAKOAK (2002-2010)

➤ Gure Autonomia Erkidegoan, 27 emakume erail dituzte 2002tik 2010era.


➤ Batezbesteko adina 44 urte ziren.

➤ EAEn, genero-indarkeriak eraildako emakumeen %66,6 egilearekin bizi zen.

➤ Gure erkidegoan, azken hamar urteetan eraildako emakumeen %74 Espainiakoak ziren.

➤ EAEn 2002 eta 2010 urte bitartean erregistratu diren genero-indarkeriaren hildakoen %74 bikoteak edo bikote ohiak erail zuten.

# GENERO-INDARKERIAREN EMAKUMEEN BIKTIMIZAZIOEN 2002-2010EKO BILAKAERA, INDARKERIA-MOTAREN ARABERA




Iturria: Aztertutako area. SSKZ Herrizaingo Saila

\* 2008ra arte (barne), familia barruko indarkeriari buruzko datuek emakume erasotzaileak (alabek amei, ahizpek,...) ere hartzen zituen; hortaz, familia barruko indarkeriaz ari ginenean ez zen bakarrik jasotzen familia barruko genero-indarkeria, Genero-indarkeriaren biktimei laguntzeko Zuzendaritzaren eskumenekoa, jakina. Horregatik eta datuak ustiatzeko hobekuntzei esker (2010ean inplementatuta), 2009ko datuak zuzendu dira; horrela, familia barruko genero indarkeria hutsari buruzko datua, 2009 eta 2010 urteei dagokienez, zuzendu egin da, baina ezinezkoa izan da hobekuntza horiek aurreko urteetara zabaltzea. Gauzak horrela, ez da benetakoa 2008 eta 2009 urteen arteko jaitziera. Alegia, aurreko metodologiari erreparatuz gero, Zuzendaritzaren 2009. urteko txostenean jaso zen bezala, %3ko hazkundera egon zen. Beraz, bederatzi urte horietan benetan egon den jaitziera 2009tik 2010era gertatu da."

➤ Azken urteetan, gure Autonomia Erkidegoan genero-indarkeria ezinbestean handituz joan da, kopurua bikoiztera helduz. 2002an, 2.477 kasu izatetik, 2009an, 4.660 kasu izatera pasa da, baina aipatu behar dugu 2010ean, guztira 4.285 kasu izan direla, beraz beherakada txikia egon da. Hiru indarkeria moten artean desberdintasunak egiten baditugu, salbuespena dago sexu askatasunaren aurkako delituetan; izan ere, genero-indarkeriazko beste bi motei dagokienez, biktimizazioen kopurua bikoiztu egin da, azken urtean beheranzko joera txikia ikusi bada ere.

# GENERO-INDARKERIAREN EMAKUMEEN BIKTIMIZAZIOEN 2002-2010EKO BILAKAERA, LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA




Iturria: Aztertutako area. SSKZ Herrizaingo Saila

- Bizkaiko datuak Gipuzkoako datuen gaineratik daude eta, kontuan hartutako ea urte guztietan, genero-indarkeriak eragindako biktimizazioak bikoizten dira.
  - Azken urteetan, Gipuzkoan izandako biktimizazioen kopuruak Araban gertatutakoa ea bikoizten du.
  - Hiru lurralde historikoetako joera, azken urteetan, gorakoa izan da, nahiz eta azken bi urteetan jaitsiera txikia egon hiru lurraldeetan (\*).
- (\*). Datuak ustiatzerakoan irizpide berriak aplikatu dira.

# GENERO INDARKERIAK ERAGINDAKO EMAKUMEEN BIKTIMIZAZIOAK (2010)

INDARKERIA MOTA	LURRALDEA							
	ARABA		BIZKAIA		GIPUZKOA		GUZTIRA	
	BIKTIMIZAZ.	EMAKUMEAK	BIKTIMIZAZ.	EMAKUMEAK	BIKTIMIZAZ.	EMAKUMEAK	BIKTIMIZAZ.	EMAKUMEAK
BIKOTEAK/BIKOTE OHIAK EGINDAKO INDARKERIA	471	390	1762	1383	1005	792	3238	2565
FAMILIA BARRUKO INDARKERIA (BIKOTEAK / BIKOTE OHIAK EGINDAKO SALBU)	106	93	485	414	244	225	835	732
SEXU ASKATASUNA	35	35	119	117	58	58	212	210
GUZTIRA	612	518	2366	1914	1307	1075	4285	3507



- Genero-indarkeriaren ondorioz, 2010ean, guztira **4.285** biktimizazio gertatu dira, **3.507** emakume biktimei dagokiena. Lau kasutatik hirutan erasotzailea eta biktima batzen edo batu dituen sentimenduzko lotura egon da.

# GENERO-INDARKERIA DELA ETA, EMAKUMEEN SALAKETAK / SALATU DUTEN EMAKUMEAK (2010)

INDARKERIA MOTA	LURRALDEA							
	ARABA		BIZKAIA		GIPUZKOA		GUZTIRA	
	SALAKETAK	EMAKUME SALATZAILEA	SALAKETAK	EMAKUME SALATZAILEA	SALAKETAK	EMAKUME SALATZAILEA	SALAKETAK	EMAKUME SALATZAILEAK
BIKOTEAK / BIKOTE OHIAK EGINDAKOAK	336	272	1212	918	665	513	2213	1703
FAMILIA BARRUKO INDARKERIA (BIKOTEAK / BIKOTE OHIAK EGINDAKOAK SALBU)	79	71	325	285	171	159	575	515
SEXU-ASKATASUNA	35	35	108	106	53	53	196	194
<b>GUZTIRA</b>	<b>450</b>	<b>378</b>	<b>1645</b>	<b>1309</b>	<b>889</b>	<b>725</b>	<b>2984</b>	<b>2412</b>

Sexu askatasunak bere gain hartzen ditu Zigor Kodean tipifikatutako delituak, familia eremutik kanpoko egileek egindakoak.


Iturria: Aztertutako area, SSKZ Herrizaingo Saila

- Ertzaintzak **2.984** kasutan **salaketaren** bidez izan du 4.285 biktimizazio horien berri. Salaketa horien %81, gutxi gorabehera, biktimek beraiek jarritakoak dira (salatu duten **2.412 emakume**).
- Ertzaintzaren aurrean, 1.095 emakumek ez dute salaketarik aurkeztu.




# GENERO INDARKERIAK ERAGINDAKO BIKTIMIZAZIOAK Denbora-ezaugarriak (2010)

Hilabetearen arabera




Asteko egunaren arabera



Iturria: Aztertutako area. SSKZ Herrizaingo Saila

# BIKTIMEN EZAUGARRI SOZIO-DEMOGRAFIKOAK (2010)



Iturria: Aztertutako area. SSKZ Herrizaingo Saila


## GENERO-INDARKERIAK ERAGINDAKO EMAKUMEEN BIKTIMIZAZIOAK, BIKTIMAREN JAIOTERRIAREN ARABERA

- Genero-indarkeriaren emakumeen biktimizazioen %69, 2010ean, Estatuan jaiotako emakumeei dagokie: zehazki, %55 EAEan (Arabian %6, Bizkaian %31 eta Gipuzkoan %18), eta %14 beste Autonomia Erkidego batzuetan. Bestalde, biktimizazioen gainontzeko %31 atzerrian jaiotako emakumeei dagokie.




# BIKTIMEN ETA ERASOTZAILEEN ADINA (2010)

## EMAKUME BIKTIMEN ADINA



## ERASOTZAILEEN ADINA



# BESTE DATU BATZUK

## ➤ ESKOLTATU BEHARREKO EMAKUMEAK

- 2010eko abenduaren 31n, 19 emakumeri bizkartzaina jarri zitzaien etengabeko zaintzaren bidez babesa bermatua izateko. Emakume horietako 3 Araban, 12 Bizkaian eta 4 Gipuzkoan bizi ziren.

## ➤ KOKAPENA ZEHAZTEKO ESKUMUTURREKOAK

- 2010. urtearen bukaeran, 10 ziren kokapena zehazteko eskumuturra zuten erasotzaileak eta biktimak.

## ➤ TELEFONO MUGIKORRAK

- Ertzaintzak 166 emakumeri eman zion babesteko telefono mugikorra. Emakume horietako 31 Araban, 74 Bizkaian eta 61 Gipuzkoan bizi ziren.



# GENERO-INDARKERIAREN EMAKUME BIKTIMENTZAT 24 ORDUKO TELEFONO BIDEZKO ZERBITZUA (900 840 111)

## ZERBITZUAREN BILAKAERA (2006-2010)





Iturria: Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza

### ➤ NOIZ DEITZEN DUTE?

- Deien %45 goizeko ordutegian egiten dira, arratsaldean %41 eta gauean %14.
- Deien %82 laneko egunetan egiten dira eta %18 jai egunetan edota asteburuetan.
- Deiek, batzaz beste, 17 minutu irauten dituzte, hala ere batzuetan 60 minututik gorakoak ere badira.

# BIKTIMARI LAGUNTZEKO ZERBITZUA (BLZ-2010)

## BLZ-k lagundutako pertsonak




Iturria: Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza

Genero-indarkeriaren biktimei dagokienez, BLZaren zuzeneko kudeaketa Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzaren menpe dago, 2011ko urtarrilaren 1etik.


# DIRU-LAGUNTZEN PROGRAMA

## DIRULAGUNTZEN BILAKAERA (2008-2010)



Laguntza horiek, 2008an, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak kudeatzen zituen.

## 2010EAN EMANDAKO 86 DIRU-LAGUNTZEN LURRALDE-BANAKETA




Iturria: Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza

# KONTRATAZIORAKO LAGUNTZAK


- > Laguntza mota horren onuradunak 2010ean **2 enpresa** izan dira **genero-indarkeriaren 2 emakume biktima kontratatu dituztelako** (lanaldi partzialeko kontratu bat eta kontratu mugagabe bat).

# ETXEBIZITZARAKO LAGUNTZAK

## TRATU TXARREN BIKTIMEEN KUPO BEREZIA: 224 espediente



## ZUZENEKO ADJUDIKAZIOAK ALOKAIRUAN: 10



Iturria: Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza



HERRIZAINGO SAILA

*Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko  
Zuzendaritza*

DEPARTAMENTO DE INTERIOR

*Dirección de Atención a las Víctimas de  
la Violencia de Género*

**“Genero-indarkeriak askatasunen garapena  
hondatzen edo ezeztatzen du eta  
arriskuan jartzen ditu emakumeen giza  
eskubideak, gizabanakoaren askatasuna  
eta emakumeen osotasun fisikoa”**

**Nazio Batuetako Asanblada Orokorra (1993)**

